



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko apirilaren 9a

35. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, krisiaren aurkako politiken esparruan, enpresentzako nahiz autonomoentzako finantzaketa eta abalareagotu eta handitu ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari berriro ere eska diezaion egin dezan, benetan, Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateri buruzko Legearen arabera dagokion ekarpena. Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejónen eta gisako egoeran dauden udaletan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza finka dezan. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gordailuen zati bat sozialki arduratsua den moduan inberti dezan Fiare Banka Etikoaren produktuetan. Nafarroa-Bai parlamentu-taldeak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-mapa azter dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da lan-talde tekniko bat era dezan, azterlan bat egite aldera egonaldi ertain eta luzeko ospitaleratzetako beharrezanezi buruz. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Lotzako eta Itzako hezeguneak eremu babes-tuen katalogoan sar ditzan, natur lekune sartu ere. Mozioa Erretiratzea (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen eraikin publiko batean finkatu eta egokitu ditzan Castejónen eta beste udal batzuetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako behar diren gelak. Mozioa Erretiratzea (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, Nafarroako ijito komunitatearen eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, NUPen urte anitzeko planei buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Tuteran Horno de Coscolín izeneko hirigintza-jarduketa betetzeko aurreikuspenei buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (15. or.).
- Galdera, parlamentu-taldeei Liburutegi Zerbitzuaren egungo egoeraren diagnostikoa ez emateko arrazoiei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (15. or.).
- Galdera, jakiteko noiz aurkeztuko zaien arlo horretako eragileei Nafarroako Antzoki Sarearen Plan Estrategikoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Iruritako ikastetxe publiko berrian jantokia paratzeko gune bat ukatzeari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (16. or.).
- Galdera, mahastietan nekazaritza eta ingurumen neurriak aplikatzeko laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen duten arauak ezartzen dituen otsailaren 19ko 76/2010 Foru Aginduan Errioxa jatorrizko deiturakoak sartu ez izanari buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (17. or.).
- Galdera, Goldberg enpresari esleitu zaion Arte Eszenikoen eta Musikaren Plan Zuzendariari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Ondare Arkeologikoaren eta Indusketen arloko 2010eko Jarduketa Plana Parlamentuan garaiz aurkeztu ez izanari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (19. or.).
- Galdera, nekazaritzako elikagaien industriarentzako laguntzen kontusailari eta nekazaritza eta ingurumen arloetako neurriei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Zangozako biribilguneko eta industrialde berriko desjabetzapenei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (20. or.).
- Galdera, nekazaritzako elikagaien publizitaterako eta nekazaritzako kooperatibak diruz laguntzeko kontusailari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Bonelli Arranoa Ugaltzeko Planeko jarduketan programari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Sodenak EHN-n zeukan partaidetza saldu izanari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Aranoko industrialdeari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Opatel sozietate publikoarekiko hitzarmenari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (23. or.).
- Galdera, Justizia Administrazioako langileekin lotutako zenbait gairi buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (24. or.).
- Galdera, Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Foru Legearen garapenari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Mendekotasun Legeari atxikitzen zaizkion zaintzaileen generoari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Mendekotasun Legea indarrean sartu zenez geroztik prestazio ekonomikoak nahiz zerbitzuren bat jasotzen dituzten pertsonen kopuruari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (27. or.).
- Galdera, Merkataritzako Erregistroan inskribatuta dauden Sakanako, Larraungo, Lekunberriko eta Irurzungo enpresei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (27. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, krisiaren aurkako politiken esparruan, enpresentzako nahiz autonomoentzako finantzaketa eta abalak areagotu eta handitu ditzan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, krisiaren aurkako politiken esparruan, enpresentzako nahiz autonomoentzako finantzaketa eta abalak areagotu eta handitu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroak jadanik bi urte baino gehiago daromatza krisi ekonomiko bortitz batean murgilduta. Krisi horren ondorioz, langabeziaren gorakada nabarmen eta jarraituak gertatzen ari dira, enpresak eta autonomoen negozio txikiak ixten, enplegu-erregulazioko espedienteak egiten behin eta berriro, eta, azken batean, hamarka mila langile

eta herritarren baldintza sozial eta ekonomikoak okertze larri eta etengabekoa ari dira nozitzen.

Eta krisia gehien larriagotzen eta horretarako irtenbidea oztopatzen ari diren baldintzapenetako bat da kreditu eta finantzaketarik eza, familiak eta enpresak, batez ere enpresa txikiak eta autonomoak, topatzen ari direna.

Sistema finantzarioak, multzo gisa (aurrezki-kutxek eta bankuek), izugarrizko erantzukizuna dauka pairatzen ari garen krisian. Urteak eman zituzten beren mailegu eta kredituen portzentaje handi bat espekulazio-jardueretara bideratzen, hala nola "higiezinen burbuilara," ekonomia erreal eta iraungarria bideratu beharrean.

Horren ondorioa da orain krisialdia ordaintzen ari direla hura sortzearen erantzukizuna ez dutenak; bestalde, familiak eta enpresak behar adinako finantzaketa aurkitu ezinik dabilta halako sistema finantzario batean non sistema horrek berak neurri handi batean sortuak diren zulo eta kaudimengabeziak korapilo nagusi baitira.

Horregatik, une honetan bereziki beharrezkoa eta premiazkoa da administrazio publikoek irmotasunez eta erabakitasunez baliabide ekonomikoak bideratzea, abal eta kredituetan gauzatuak, gizar-teari, familiei eta enpresei, horrelakorik behar adina egiten ari ez den sistema finantzarioaren ordezkariak.

Nafarroako Gobernuak, Krisiaren aurkako bere Planean, finantzaketa-bide horiek aktibatuta dituen Sonagar, Nafinco eta Sodena sozietate instrumentalen bitartez, baina partzialki eta oso modu eska-sean.

Horrela, 2009. urtean (krisialdi bortitzeko urtea), Sonagar-ek "Nafarroa Abala" deritzonaren

16 eragiketa bakarrik egin ditu, guztira 8 milioi euroko zenbatekoa egiten dutenak.

Horixe izan da krisiaren aurrean izan duen ohiz kanpoko jarduera guztia 2009an (16 abal, 8 milioi eurokoak), nahiz eta, esate baterako, 2007an haren jarduera arrunta 780 abalekoa izan zen, guztira ia 36 milioi euroko kopurua egiten zutenak.

Eta Krisiaren aurkako Planaren esparruan Sonagar, Nafinco eta Sodenak emandako abal-multzoak 111 milioi euro soilik egiten du, 583 eragiketatan (Sonagar-en 16, Nafinco-ren 559 eta Sodena-ren 8).

Nafinco-k eginiko 559 eragiketetatik (57,8 milioi zenbatekoa egiten zuten), 8 izan dira mikro-kredituetarako abalak emateko; 437, enpresa txiki eta ertainen (ETE deritzenen) eta mikroETE-en zirkulazailerako abalatzeko; 21, enpresa handien zirkulazailerako abalatzeko; eta 93, inbertsio-eragiketarako abalatzeko.

Nahiz eta Nafinco-ren abal-programaren helburua izan 300 milioi euroko kopurura iristea, kontua da 2009an 57,7 milioi balioa egiten dutenak soilik eman direla.

Balantze hagitz eskasa, jasaten ari garen krisiaren norainokoa eta larritasuna aintzat hartuz gero. Hagitz eskasa, kontuan hartzen badira hitzarturiko baliabide publikoak, ozta-ozta baitira, adibidez, Navarra Arena kiroldegirako eta Los Arcos-ko abiadura-zirkuiturako bideraturiko diru publikoaren parekoak.

Ikus daiteke, beraz, Nafarroako Gobernuak ez dituela behar bezala bideratu eskueran dituen baliabide ekonomikoak gaur egun erabateko lehentasunekoak diren jarduketetara (adibidez, autonomo-eragileak eta enpresei abalak eta finantzaketa neurri handiagoan ematea).

Eta estualdietan izanik bideragarritasun-plana daukaten enpresei kredituak emateari dagokionez, Nafarroako Gobernuak krisialdiaren aurka eginiko planaren barrenean bakar-bakarrik 2,8 milioi euro eman dira 2009an, 10 eragiketatan.

Kopuru horiek zeharo apalak dira.

Familiek ohiko etxebizitza erosi ahal izateko hipotekazko kreditua eskuratu ahal izateari dagokionez ere, murriztapenak nabarmen ari dira gora egiten. Etxebizitza babestu baten hartzaile suertatu ondoren hori erosi ezin izateagatik etxebizitzari uko egin behar izan dioten herritarren eta familien kopurua laukoiztu egin da.

Etxebizitza babestu bat erosteari horrela uko egitearen zergatia krisialdia eta langabezia dira, eta, zehazki, kreditu-entitateek hipotekazko maileguak emateko exijentziak eta baldintzak gogortu izana. Alegia, etxebizitza babestu baten hartzaile izateko baldintza pertsonalak eta ekonomikoak betetzen dituzten herritarrek eta familiak etxebizitza hori eskuratzeko aukera errealik gabe geratzen dira, bankuek eta aurrezki-kutxek hipotekazko kreditua ukatzen dietelako.

Egoera lazgarria da hori, eta urratu egiten du gero eta pertsona eta familia gehiagoren eskubide konstituzionala, etxebizitza bat eskuratu ahal izatearena.

Horregatik, egunegun larriagotzen ari den egoera honen aurrean, Nafarroako Ezker Batuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio erabaki politikoa har dezala eskubide konstituzional bat bermatzen ari ez den merkatu finantzario batean esku hartzeko.

Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu esku har dezala, adibidez, banku eta aurrezki-kutxek ipintzen dituzten baldintza gero eta gogorragoak ezin betetzeagatik hipotekazko kreditua ukatzen zaien etxebizitza-hartzaileei abal publiko bat emanez.

Hori guztia dela-eta, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko erabaki-proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, krisiaren aurkako politiken esparruan, enpresentzako (batez ere, enpresa txiki eta ertainentzako) nahiz autonomoentzako finantzaketa eta abalak areagotu eta handitu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abal publikoak eman ditzan, etxebizitzaren prezioaren ehuneko ehunerainokoa, etxebizitza babestu baten hartzaile izateko baldintza pertsonal eta ekonomikoak bete arren finantza-entitateek hipotekazko mailegua ukatzen dieten etxebizitza babestu baten hartzaileentzat.

3. Nafarroako Parlamentuak egiaztatu du Nafarroako Gobernuak eta bere sozietate instrumentalek krisia dela-eta enpresa eta familientzako finantzaketa eta abalarentzako bideraturiko baliabide ekonomikoak orain arte oso eskasak izan direla.

Iruñean, 2010eko martxoaren 18an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari berriro ere eska diezaion egin dezan, benetan, Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateri buruzko Legearen arabera dagokion ekarpena.

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari berriro ere eska diezaion egin dezan, benetan, Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateri buruzko Legearen arabera dagokion ekarpena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioen azalpena

Publikoki ohartarazi izan da, behin baino gehiagotan, Espainiako Gobernua ez dela betetzen ari mendekotasunaren alorrean hartuta dituen finantzaketa-konpromisoak, zeren eta gaur egun Estatua askoz ere beherago baitago ordaintzea dagokion ehuneko 33a baino, gutxieneko eta itunduriko maileri dagokienez, betiere Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko Legean ezarritakoa aintzat harturik.

Azken urteotan, Estatuak Nafarroari mendekotasun-alorrean aurreikusitako prestazioetarako

finantzaketaren ehuneko 8 eta 11 bitarteko ekarpena egin dio. 2009ko urrian, Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu zuen Estatuarekin. Hitzarmen hori zela medio, eta E Planaren bitartez, Espainiako Gobernuak 5,8 milioi euro gehiago ipiniko zituen, eta horrek Estatuaren ekarpena ehuneko 17raino igotzen du, baina ez gehiago.

Bereziki kezkarria iruditzen zaigu Nafarroako Gobernutik baliabideak bideratzea bermatuak diren prestazioetara (zeinak aintzat hartuta baitaude hala Mendekotasun Legean nola Gizarte Zerbitzuen Foru Legean, eta haien finantzaketan Estatuak parte hartu beharko zuen Mendekotasunari buruzko Legean ezarritako portzentajearen) bestelako baliabide edo proiektu batzuen kaltetan, zeinak, ez bermatuak ez eta lehentasunezkoak ez badira ere, garrantzizkoak badiren.

Zer esanik ez, krisi ekonomikoak solidario eta arduratsu izatera behartzen du, eta lehentasuna da pertsoneri ez murriztea beharrezkoa eta bermatua den zerbitzua; hala ere, ardua eta elkartasun horiek eskatzekoak zaizkie bermatuak diren zerbitzuak ematearekin zerikusia duten administrazio guztiei. Eta, hain zuzen ere erantzukizun horrenagatik, Nafarroako Foru Komunitatea behartuta dago Espainiako Gobernuari bere konpromisoak bete ditzan eskatzera, gaur egun Estatuak ematen ez duen finantzaketa berdintzera bideratu behar dituen funtsak Nafarroako gizartearen beste beharrezan batzuk asetzeko erabili ahal izateko.

Hori dela-eta, CDNk ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari berriro ere eska diezaion Estatuak egin dezan, benetan, Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko Legearen arabera dagokion ekarpena, zerbitzuen finantzaketaren ehuneko 33koa.

Iruñean, 2010eko martxoaren 18an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Castejónen eta gisako egoeran dauden udaletan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza finka dezan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Castejónen eta gisako egoeran dauden udaletan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza finka dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, dagokion Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak foru lege bat onetsi zuen 2001eko maiatzaren 17an, Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeko buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartu zuen Erabakia betetzeko.

Lege proposamen horrek bere artikulua bakarrez ezartzen zuen Nafarroako Gobernuak behartuta dagoela Castejón herrian Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza-zerbitzuak berreskuratzea. Horrela, udalerrak eginiko eskolatzeko-erantzun bat ematen zitzaion.

Nafarroako Gobernuak, behin-behinekoz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bi mailak antzinako eraikin batean kokatu zituen, "Colegio Sagrados Corazones" gisa ezaguna den horretan. Nafarroako Gobernuak ez da eraikin horren jabea, eta horren erabilerekin truke alokairutan eta mantentze-lanetan ordainduriko diru-kantitatea ez da nolana hobia (2009an, kopurua 39.689,41 eurokoa izan zen).

2009-2010 ikasturte honetan, ikastetxe horretara joaten ari diren ikasleak hiru klasetan banatuta daude; guztira, 52 pertsona dira. Ikasle-kopuruaren bilakaerak erakusten du datozen urteetan bi lerro beharko direla, eta hirugarren bat ere bai, agian. Eraikin horrek, bere antzinatasunarengatik, eta behar bezalako mantentze-lanik egin ez zaio-lako, irakaskuntza publikoan eskaini beharreko kalitate-baldintzak ez ditu betetzen. Horrez gain, kostu handia dauka Nafarroako Gobernuarentzat.

Hurrek beren udalerrian ikasteko modua izaten dutenean, bizi-kalitate eta jende-errotze handia lortzen dira, eta gainera, herrian elkarbizitza askoz ere trinkoagoa egitea ahalbidetzen da, eta Tuterako ikastetxeetara joatean beste ikasle batzuek egin behar ohi dituzten bidaiek dauzkaten alferrikako arriskuak saihesten.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Castejónen eta antzeko egoeran dauden gainerako udalerrietan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza indar dezan.

- Nafarroako Parlamentuak Gobernuak premiatzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza behar den kalitatearekin Castejónen irakasteko beharrezkoak diren ikasgelak eraiki ditzan edo eraikin publiko batean egokitu ditzan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gordailuen zati bat sozialki arduratsua den moduan inberti dezan Fiare Banka Etikoaren produktuetan.

NAFARROA-BAI PARLAMENTU-TALDEAK, SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK, CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa-Bai parlamentu-taldeak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bere gordailuen zati bat sozialki arduratsua den moduan inberti dezan Fiare Banka Etikoaren produktuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldek eta foru parlamentarien elkarteek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Finantza-jarduera giltzarrietako bat da edozein gizartetan ekonomia modu orekatuan garatu ahal izateko. Alabaina, garapen hori ez da beti gizarte-oreka, justizia eta ekitatearen ildoan arabera gauzatzen. Begi-bistakoa da jarduera ekonomikoak ez direla neutralak, eta haietako edozeinek badituela ondorio batzuk gizartean, ingurumenean eta etikaren arloan, gizarteko pertsona eta sektore batzuei mesede eta beste batzuei kalte egin ahal dietenak.

Erakunde eta inbertsio finantzarioen kasua ez dago logika horretatik at. Ekoizpen-ekonomiari

modu larrian eragiten dion gaur egungo krisi ekonomikoak krisi finantzario batean du jatorria, eta krisi finantzario horren sortzaileak dira, funtsean, arrisku handiko inbertsioak, espekulatiboak eta mugarik gabekoak, gutxieneko araurik eta inbertsio finantzarioen kontrol sozialik eza, eta biztanle-eritasunaren interes orokorreko konpromisoen ahanztura.

Ondorioz, kudeatzaileek muturreko egoeretan eramanak ziren entitate pribatu asko, akziodunetan oinarrituak, salbatzeko, gobernuek, azken hilabeteotan, eta herritar guztien zergetatik datozen baliabide publikoak erabiliz, esku hartu izan behar dute izugarriko kantitate ekonomikoak jarriz.

Bitartean, azken urteotan, herrialde aurreratuetan gora egin du aurrezpen eta inbertsio etikoekiko kezka, bai gizartearenak bai eta herritarrenak ere, onura ekonomikoez gain onura sozialak eta ingurumenarenak aintzat hartzen dituen ikuspegi batetik. Ildo horretan, aurrezpen eta inbertsio etikoekin sentsibilizaturiko gizarte-erakundeak eta norbanakoen ekimenez, badira zenbait urte ezauzgarri horiek dituzten gizarte-erakundeak sortzen hasi zirenetik Europako herrialde batzuetan.

Tankera horretako entitate multzo batek –Banca Popolare Etica (Italia), Caisse Solidaire du Nord Pas-de-Calais eta Crédit Coopératif (Frantzia), Crédal (Belgika), eta Tise (Polonia)– 2001ean FEBEA eratu zuten; hots, Finantza eta Banku Etiko eta Alternatiboen Europako Federazioa. (www.febea.org).

Eratu zenetik, kooperatiba edo fundazioetan oinarrituriko banku-jarduera etikoko Europako finantza-erakunde ugari bat egin dute federazio honekin: Nef (Frantzia), Caixa Pollença (Espainia), BBK Solidarioa Fundazioa (Espainia), Bank für Sozialwirtschaft (Alemania), Cassa Centrale delle Casse Rurali Trentine e BCC del Nord Est (Italia), Charity Bank (Britainia Handia), Femu Qui (Korsika), Fundació Un Sol Món (Espainia), SIDI (Frantzia), FIG (Suitza), Merkur (Danimarka), Cultura Sparebank (Norvegia), Ekobanken (Suedia) eta FIARE (Espainia).

Finantza eta Banku Etiko eta Alternatiboen Europako Federazioa irabazi-asmorik gabeko

nazioarteko elkarte bat da, egoitza Bruselan duena, eta irekita dagoena bai Europar Batasuneko kide diren herrialdeei, bai eta hautagai diren herrialdeei eta truke askeko eremuko ere. Gaur egun, 25 banku eta kooperatiba finantzario biltzen ditu, beren herrialdeetako finantza etiko eta solidarioen esparruan dihardutenak (13 herrialde, orotara), jomuga izanik Europar finantza etikoen garapena sustatzera bideraturiko lanabes finantzarioak eratzea.

Entitate horien helburu komuna da ekonomia sozial eta solidarioa finantzatzea eta, oro har, "hirugarren sektore" deritzonoko ekimenak. FEBEAKo kideek beren gaitasunak eta finantzaketa ematen dizkiete elkartasunezko ekonomiako ekileei: aspalditik langabezian egonik jarduera ekonomikoak eratu nahi dituztenei, nekazaritza ekologikoaren aldeko hautua egiten duten nekazariari, gizarteratze-enpresetako zuzendariei, eta abar.

Horiek guztiek zailtasun larriak izan ohi dituzte banku-sistema tradizionalen finantzaketa aurkitzeko. Biztanleriaren sektore txiroetan zer eta kreditua eskuratzeko eskubidea gauzatu ahal izateari dagokionez, hots, herrialde aurreratuetan erabateko herritartasunak berezkoa duen elementua, gaur egungo krisi ekonomikoarekin larriagotu egin dira ohikoak diren kinka horiek.

Horrela aitortu zuen Europar Batzordeak berak 2009ko uztailaren 2an, Europar Parlamenturako eta Kontseilurako bere erabaki-proposamena aurkeztean, zeinak posible egin beharko baitu Europako mikroreditu-tresna bat abiaraztea 2007an eraturiko Progress Programaren barrenean, zeinak helburu gisa baititu laneratzea eta gizarte-elkartasuna.

Programa horrek mikrofinantzaketa eskainiko die (Europako testuinguruan, 25.000 eurotik beherako maileguak) mikroenpresei eta langabezian dauden pertsonari, ohiko banku-sisteman diru hori eskurazina zaiela frogatuta.

FEBEAKo kideek honako printzipio-gutuna errespetatzeko konpromisoa hartzen dute:

- Lortu nahi den helburua ez dadila soilik izan etekin ekonomikoa bilatzea.
- Burujabetasun politikoa eta ekonomikoa eduki-tzea.
- Bereziki honako helburuak lortzera bideratuak diren ekimen ekonomikoak finantzatzea: lanpostuak sortzea, garapen iraungarria, aniztasun kultural eta etikoa, nazioarteko elkartasuna eta bidezko merkataritza.
- Gutxienez ere milioi bat euroko kapitala izatea.

- Egoitza nagusia Europako Batasunean edukitzea.

Fiare Proiektuaren oinarriak:

Fiare da banka etikoaren estatu-sistema bat eratu eta indartzeko proiektu bat, banka hori herri-tarrek hautatzeko moduko alternatiba bilakatzea helburu duena, sistema finantzarioaren eraldakuntzan nabarmenki eragin dezan, bidegabekeria sortzen duten egituren eraldakuntzaren esparruan jadanik jardunean ari diren entitateekin batera.

Fiare Proiektuak konbentzimendu bat eta intuizio bat dauzka iturburu. Konbentzimendua, arlo ekonomikoan alternatibak behar izatearena, sistema ekonomiko neoliberalaren egiturazko problemak gainditzen ahalegintzeko; batez ere, sistema horrek pertsonen arteko desberdintasunak ezabatzeko duen ezintasuna gainditzen ahalegintzeko.

Intuizioa (2003an proiektua abiaraztera bultzatu zuena), elkartegintzak eta herritarren kontzientziak gaur egun beharrezkoak diren osagaiak erakusten dituztela estatu-mailan, honelako ekimen bat irimotzen ahalegintzeko, hain zuzen ere Europako beste toki batzuetan jadanik gertatu den bezala.

Fiare-ren ezaugarri nagusia da, funtsean, metaketa sozialeko mugimendu bat izatea, eraikita dagoena gizarte-eraldakuntzarekiko konpromisoa hartu duten ehunka entitatek osaturiko antolakuntza-sare indartsu bat oinarri hartuta. Metaketa horrek bi norabidetan eginiko ahalegina gorpuzten du: alde batetik, finantza-bitartekaritza gehitzen dio jadanik existitzen diren alternatiben multzoari (lankidetzak, elkartasunezko ekonomia, bidezko merkataritza, enpresa-eredu alternatiboak, nekazaritza-ekologia, eragimen politikoa). Bestetik, hain zuzen ere oinarri horretan bermatuz eraikitzen da, eta Fiare Proiektuaren egiazko eraikitzaileak dira esparru horietan konprometiturik diharduten mugimenduak eta pertsonak.

Fiare-ren nahia da, beraz, bere burua oinarri sozial baten gainean eraikitzea (egiazko "jabeak" edo "eragileak"), zeinak bermatuko baitu proiektuak gaitasuna izatea ulertzeko zein diren gure gaur egungo gizarte-justiziaren helburuak ezartzen dizkien betebeharrak. Oinarri hori injustizia-egoera horiek exijitzen dituzten fronte ezberdinetan erantzunak bilatzeko motibatuta egonen da. Bitartekaritza finantzarioa fronte horietako bat da, eta proiektua eraikitzeko modua ezinbesteko baldintza da ahalmen eta motibazio horiei eutsiko dien alternatiba bat irimotzeko; batez ere, proiektua hazten doanean.

Begirada betiere kreditu-kooperatibaren eraketan ipinita, hori baita proiektu-eraketaren fase honen helmuga, 2009an sozietate-kapitala biltzeko kanpainari ekin zaio. Helburua da gutxienez ere bost mila pertsona eta bazkide-erakundez osaturiko oinarri soziala finkatuta edukitzea 2012rako, lau milioi eurotik gorako sozietate-kapitalarekin. 2009. urtearen amaieran, bildutako kapitalak alde handiz gaintzen zuen milioi bat euroko kopurua, eta bazkide bihurturiko mila pertsona eta erakunde inguru zeuden.

Nafarroan, ekimen hori 2005eko uztailetik aurrera hasi zen garatzen, Fiare Fundazioaren eta Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearen arteko akordioarekin. Urte horretako abenduan, bezeroari erantzuteko bulego bat ireki zen IPESen (Telleria kalea), astearteetan irekia, 17:00etatik 19:00etara bitartean. Gaur egun, Nafarroan 1.936.000 euro daude gordailututa, 209 konturen bidez lortuak, eta 6 mailegu finantzatu dira, guztira 770.000 euroko balioa egiten dutenak.

2007ko abuztuan, Nafarroako hiru gizarte-sarek, Nafarroako Garapenerako GKE-en Koordinadorak, Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak eta Nafarroako Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren aurka Borroka egiteko Sareak, Fiare Nafarroa elkartearen eraketa sinatu zuten, banka etikoaren proiektu hori jendarteratzeko.

2009ko martxoaz geroztik, Fiare Nafarroa elkarteak murgilduta dago Nafarroan sozietate-kapitala eskuratzeko kanpainan, banka etikoaren kreditu-kooperatiba bat eratzekeo nahitaezko urratsa baita hori. Nafarroan 189.000 euro lortu dira, eta Estatu osoan, 1.280.000 euro. 2011rako helburua da Nafarroan 325.000 biltzea, eta Estatuan, 5.200.000.

Modu ezberdinetan, Nafarroako Parlamentua eta erakunde horretan lan egiten duten alderdiek banka etikoaren alde daudela erakutsi dute, bidezkoagoa den gizarte bat eraikitzekeo eta txirotasuna desagerraraztekeo bitartekoa den aldetik.

A) Nafarroako Parlamentuak 2006ko martxoaren 30ean egin zuen Osoko Bilkuran, aho batez onetsi zen mozio bat, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen neurriak har zitzan Elkartasunezko Ekonomiaren Nafarroako Sareak administrazio publikoetan parte hartzeko. Xehekiago adierazten zen kontsumitzaileei banka etikoaren abantaila buruzko informazioa ematearen alorreko jarduerak sustatuko zirela.

B) Parlamentuan ordezkaritza daukaten indar politiko guztiek Pobreziaren Aurkako Nafarroako Ituneari, B.3. ataleko b. letran, honakoa esaten da: "Lankidetzak-hitzarmenen bidez sostengua ematea

alternatiboak edo banka etikokoak diren finantza-tresnen irimotzeari, baldin eta osoki bideratuta badaude gizarte, ingurumen eta kulturaren arloetako eta arlo humanitarioko proiektu eta ekimenei laguntza ematera, zeinetan interes nagusia baita eragin sozial positiboa izatea, bai iparraldean, bai hegoaldeko herrialde txirotuetan ere..."

C) Erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko, bultzatzeko eta indartzeko programa orokorraren 3. helburuan, intereseko beste talde batzuetan erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeari buruzkoan, 7. neurria adostu zen, zeinak honela baitzioen: "Banka etikoaren eta sozialki arduratsua diren inbertsioen inguruko sentsibilizazioa sustatzea"

Azaldutako guztia dela-eta, honako erabakia proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bere gordailuen zati baten inbertsio sozialki arduratsua egin dezan Fiare banka etikoaren produktuetako edozeinetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio gizarte-kapitaleko ekarpen bat egin diezaion Fiare-ri, erakunde publiko gisa gutxienekoa den parte-hartzearekin (1.800 euro).

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du kontusail bat ezar dezan 2011 eta 2012ko aurrekontuetan, urtean 35.000 euro inguruko esleipena izanen duena, banka etikoaren egitura Nafarroan irimotze aldera. Esleipen hori erabiliko litzateke pertsona bat kontratatu eta bulego bat alokatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du hurrengo aurrekontuetan kontusail bat esleia dezan banka etikoaren jendarteratzerako eta horri buruzko sentsibilizaziorako, enpresen erantzukizun soziala bultzatzeko bere programan adierazten den bezala.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du laguntza ekonomikoa eman diezaion gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen, bai eta gizarteratze-zentroek eta zentro horien erabiltzaile diren pertsonen ere, dituzten finantzaketa-beharrizanei buruzko azterlan bati, era horretan tresna finantzario berriak pertsona horien beharrizanei egokitzeko, aurrera eramaten ari diren gizarteratze-prozesuentzako albo-laguntza gisa.

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentariak: Ioseba Eceolaza Latorre, José Javier Monzón Romé, Juan Cruz Alli Aranguren eta Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-mapa azter dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eskola-mapa azter dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako eskola-mapa berriki dezan.

Zioak

Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran zehaztu zen Nafarroako eskola-mapa. Urte haueetan zehar hezkuntza-sisteman eginiko aldaketek eskola-mapa berrikustera behartzen dute: derrigorrezko hezkuntza luzatu da eta beste irakaskuntza-etapa batzuk hedatu dira, dinamika sozial berriak daude, ikasle-aniztasunari arreta tinkoa eman behar zaio, eta helburu gisa ezarrita dago Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua

ikasle gehienek lortu ahal izatea eta ehuneko 85ek derrigorrezkoaren ondoko ziklo bat izatea. Aipatutako arrazoiei bilakaera demografikoa gehitu behar diegu, zeinak Nafarroako zenbait herritan eskola-adineko populazioa aldarazi baitu.

Adierazitakoek iradokitzen dute komeni dela Nafarroako eskola-mapa berrikustea eta hezkuntza- nahiz gizarte-arloetako beharizan berrietara egokitzea, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etaparai dagokionez. Helburu hori gaur egun Parlamentuan izapidetzen ari den Nafarroako Hezkuntzari buruzko Oinarrien Proposamenaren artikuluetan ere adierazten da.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako eskola-mapa azter dezan, Nafarroako gizartearen gizarte- nahiz hezkuntza-beharrizanei egokitze aldera eta kalitate handiagoko hezkuntza-sistema bat garatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arreta handiagoa eman diezaion Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari, bateragarri eginez ikasleen bizilekua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetatik hurbil egotearen irizpidea eta ikastetxeen tamainaren irizpidea, halako moduan non bermatu eginen baita ikasleek, nagusiki DBHko bigarren ziklokoek, hautazko irakasgaien eta aniztasuna artatzeko neurrien eskaintza bat eskueran izatea, ikasle guzti-guztien hezkuntza-beharrizanei erantzun ahalko diena, berdin delarik beharizan horiek ezgaitasunaren, jokabide-problemen, egoera soziokulturalaren edo gaitasun handien edo bestelako onduziozkoak diren.

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da lan-talde tekniko bat era dezan, azterlan bat egite aldera egonaldi ertain eta luzeko ospitaleratzeetako beharrezanean buruz.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita lan-talde tekniko bat era dezan, azterlan bat egite aldera egonaldi ertain eta luzeko ospitaleratzeetako beharrezanean buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Comptos Ganberak, San Juan de Dios ospitalearekiko osasun-itunari buruz eginiko 2008ko ekitaldiko kudeaketa-auditorian, honako gomendio hauek egiten zituen:

1.- Ituna sinatu aurretik aintzat hartzea Osasunbidearen baliabideen erabilera optimoa; horretarako, justifikatu egin beharko dira dauden beharrezanek eta haiek asetzeko baliabide berekien eskastasuna.

2.- Azterlanak egitea, baliabide berekiekin nahiz besterenekin zerbitzu bat ematearen kostuari buruz. Azterlan hori oinarri gisa hartuko da zerbitzu-ematearen modalitateari buruzko erabakiak hartzerakoan. Hori guztia, osasun-beharrezanean efizientziaz, eraginkortasunez eta kalitatez erantzun ahal izateko.

3.- Itunduriko osasun-zerbitzuen kostu errealak zehazteko adierazleak ezartzea.

Barne Medikuntzarako gaixo-igorpenei buruz txostenak dioen bezala, jarraitzen den irizpidea da ustez gaixondo luzea izanen duten gaixoak igortzearena, gaixoa diagnostikatu eta aztertzekeo prozesua amaitu ondoren, terapia-aukerak itxi ondoren edo, arrazoi sozialak direla tarteko, gaixoak ospitaleratuta segitu behar duenean, etxera itzultzeari buruzko irizpenaren edo baliabide soziosanitario bat eskuratzearen zain.

Orobat igorriak dira zainketa aringarriak behar dituzten gaixoak. Egonaldiaren iraupena eta zainketa aringarrien beharrezanek irizpide gisa hartzen dira, hain zuzen, sare publikoko ospitaleak gaixo akutuentzako direla jotzen delako; beste gaixo hauek, ordea, kroniko eta terminalizat jotzen dira, eta beren gaixondoak ezinbestean luzatzen dira, egonaldi luzeagoak izan ohi baitituzte akutuentzako ospitaleetan estandartzat hartzen direnak baino.

Jadanik urte asko dira Osasunbideak zerbitzu hauek San Juan de Dios ospitalearekin itundu beharra duela, nahiz eta, Comptos Ganberaren txostenaren arabera, ez duen behar bezalako justifikaziorik aurkezten horretarako. Bere gaur egungo nahiz etorkizuneko beharrezanek kalkulua egorria falta zaio, bai eta zerbitzu-mota bakoitzerako ordaindu beharreko tarifen definizioa ere.

Adierazitako hori guztia dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du parlamentu-talde honek:

1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du lan-talde tekniko bat era dezan, azterlan bat egite aldera egonaldi ertain eta luzeko ospitaleratzeetako gaur egungo eta hurrengo urteetako beharrezanean buruz; besteak beste, zainketa aringarrietan eta geriatrian.

2. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du zerbitzu horiek baliabide berekiekin edo besteren baliabideekin ematearen kostuak zehatz ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du San Juan de Dios ospitalearekin itun bat egiteko aukera azter dezan, egiturazko izaera izanen duena eta Nafarroako

osasan-sistema publikoaren plangintzan txertatzeko konpromisoa ere barne hartuko duena. Itun hori datozen hamarkadetakako izanen litzateke, eta horren bidez erantzun egokia, behar adinakoa eta kalitatezkoa emanen litzaeike Nafarroako biztanle-

ek ospitale-egonaldi ertain eta luzeei dagokienez dituzten beharrazanei.

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Lotzako eta Itzako hezeguneak eremu babestuen katalogoan sar ditzan, natur lekune sartu ere.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen Lotzako eta Itzako hezeguneak eremu babestuen katalogoan sar ditzan, natur

lekune sartu ere, buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan duela adieraztea.

Mozio hori 2010eko martxoaren 12ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da eraikin publiko batean finkatu eta egokitu ditzan Castejónen eta beste udal batzuetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako behar diren gelak.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen eraikin publiko batean finkatu eta egokitu ditzan Castejónen eta beste udal batzuetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako behar

diren gelak, erretiratu izanaren berri izan duela adieraztea.

Mozio hori 2010eko martxoaren 26ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Nafarroako ijito komunitatearen eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Parlamentuak Nafarroako ijito komunitatearen eguna ospatu nahi du, eta aitortzen du Nafarroako herritar multzo garrantzitsu bat ijitoen komunitateko kide dela. Berezko kultura zehatza duen komunitate horrek gainerako herritarrek dituzten eskubide eta betebeharrak berak ditu eta, 500 urteko bizikidetzaren ondoren, gero eta pluralagoa eta kulturartekoagoa den gizartea aberasten jarraitzen du.

2.- Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du ijito komunitatearen eta, bereziki, ijito gazteen gizarteratze-prozesuei mesede egiten dieten mekanismo eta baliabide guztien aldeko bere jarrera, eta erakundeak premiatzen ditu berariazko zerbitzuak abiaraz ditzaten, haien berezitasun eta

interes araberakoak, haien beren herritartasuna osoki erabili eta baliabide eta zerbitzu normalizatuak eskuratu ahal izan ditzaten. Hezkuntzaren alorrean, ahalegin horrek alibait handiagoa behar du izan, hezkuntzak giza talde honen erabateko integrazioan duen zeresan erabakigarria dela-eta.

3.- Nafarroako Parlamentuak ijito herriaren irudi ona eta egiazkoa zabaltzen lagunduko duten politikak sustatzearen aldeko jarrera adierazten du, gaur egun oraindik dirauten estereotipo eta aurreiritziak horrela deuseztatzeko.

4.- Nafarroako Parlamentuak herritarrei dei egiten die ospakizun honekin lotuta antolatzen diren ekitaldi guztietan parte hartzera.”

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, NUPen urte anitzeko planei buruzkoa.**SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, NUPen urte anitzeko planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du,

Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak eta PSN-POSEk joan den azaroan aurrekontu-akordio bat sinatu zuten, zeinean, besteak beste, konpromiso bat jasotzen baitzen, urte anitzeko plan bat egin eta hartarako dirua bideratzekoa, NUPek aurre egin behar dien finantzaketa- eta funtzionamendu-problema nagusiak ebatziko zituena. Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko ahozko galdera aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Gobernuak ekin al dio NUPen urte anitzeko planak prestatzeko prozedurari? Zein egoeratan dago prozedura hori eta hitzarmen horiek errealitate bihurtzeko zer epe darabiltza Foru Gobernuak?

Iruñean, 2010eko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, Tuteran Horno de Coscolín izeneko hirigintza-jarduketa betetzeko aurreikuspeni buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Tuteran Horno de Coscolín izeneko hirigintza-jarduketa betetzeko aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroa-

ko Gobernuako Etxebizitza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioen azalpena

Garai bateko Etxebizitza kontseilari Carlos Esparzak, Tuterara eginiko bisita batean, esan zuen ezen "Horno de Coscolín" deituriko hirigintza-jarduketaren proiektuari, zeina blokeo-egoeran baitzegoen aurkeztua izan zenetik zazpi urte igaro zirelarik (gaur egun, jadanik bederatzi urte pasa dira), berehalakoan ekinen zitzaiola berriro.

Hedabideei eginiko adierazpen haietatik bi urte baino gehiago igaro dira, eta halaber, Osoko Bilkuran galdera ezberdinak egiten denbora asko eman dugu, baina egoerak bere horretan segitzen du. Hori dela-eta, honakoa jakin nahi nuke:

Noiz du asmoa Nafarroako Gobernuak Tuteran "Horno de Coscolín" izeneko hirigintza-jarduketa betetzeko?

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, parlamentu-taldeei Liburutegi Zerbitzuaren egungo egoeraren diagnostikoa ez emateko arrazoiei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, parlamentu-taldeei Liburutegi Zerbitzuaren egungo egoeraren diagnostikoa ez emateko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako ahozko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak dagokion batzordean erantzun dezan.

Zergatik ez zaie eman parlamentu-taldeei Nafarroako Gobernuaren Liburutegi Zerbitzuaren egungo egoeraren diagnostikoa? (Dokumentu hau zen berriki eman zaigun Plan estrategikoaren -1. fasea- aurretiazkoa).

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko noiz aurkeztuko zaien arlo horretako eragileei Nafarroako Antzoki Sarearen Plan Estrategikoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko noiz aurkeztuko zaien arlo horretako eragileei Nafarroako Antzoki Sarearen Plan Estrategikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako ahozko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak dagokion batzordean erantzun dezan.

Asmoen arabera, Nafarroako Antzoki Sarearen Plan Estrategikoa noiz aurkeztuko zaie arte eszenikoen sektoreko eragileei?

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean.

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Iruritako ikastetxe publiko berrian jantokia paratzeko gune bat ukatzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, Iruritako ikastetxe publiko berrian jantokia paratzeko gune bat ukatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari M^a Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilari Alberto Catalán jaunak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Irurita herrian ikastetxe berri bat eraikitze proiektua dago. Herri horretako gurasoen elkarteak publikoki adierazi du eraikin berri-rako ez dela aurreikusi jantoki-zereginak beteko dituen gunerik. Orain arte, gaur egungo ikastetxean zerbitzu hori existitzen da, eta ezinbesteko deritzote haurrei jantokira joateko aukera emateari. Hezkuntza Departamentuak ez du zerbitzu hori aurreikusten, nahiz eta familiek behin eta berriro horretarako eskaera egin duten, eta maila teoriko batean hainbeste aipatu ohi den lana eta familia bateragarri egin beharra, eta legebiltzar honetan ikastetxe berriei buruzko lantaldeak ondorioztatu arren hezkuntzaren arloko eskualde eta zirkuntantzien arabera beharrezkoak diren dotazioak eduki behar direla.

Hori dela-eta, parlamentari honek ondoko ahozko galdera egin du:

Zergatik Departamentu horrek ez du ezarri nahi jangela gisa funtzionatuko duen gune bat Iruritako ikastetxe publiko berrian?

Iruñean, 2010eko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, mahastietan nekazaritza eta ingurumen neurriak aplikatzeko laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen duten arauak ezartzen dituen otsailaren 19ko 76/2010 Foru Aginduan Errioxa jatorrizko deiturakoak sartu ez izanari buruzkoa.

MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, mahastietan nekazaritza eta ingurumen neurriak aplikatzeko laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen duten arauak ezartzen dituen otsailaren 19ko 76/2010 Foru Aginduan Errioxa jatorrizko deiturakoak sartu ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zergatik Foru Komunitatean kokaturiko Errioxa jatorrizko deiturako mahastiak ez dira jaso otsailaren 19ko 76/2010 Foru Aginduan, zeinak nekazaritza- eta ingurumen-neurriak ezartzen baititu mahastietarako, eta zergatik 25 urte baino gutxiagoko mahastiak ezin dira neurri horiez profitatu?

Iruñean, 2010eko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Goldberg enpresari esleitu zaion Arte Eszenikoen eta Musikaren Plan Zuzendariari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Goldberg enpresari esleitu zaion Arte Eszenikoen eta Musikaren Plan Zuzendariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, Osoko Bilkurarako honako ahozko galdera hau egiten du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak aho batez eskaturiko Musikaren Plan Zuzendariaren garapenari buruzkoa.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak, 2009ko otsailaren 12an eginiko Osoko Bilkuran, aho batez onetsi zuen mozio bat, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlan bat egin zezan, horren ondorioz prestakuntzari, interpretazioari,

zabalkundeari eta sorkuntzari buruzko plan bat egiteko.

Epea amaitu eta Plana Parlamentuari igorri ez zaionez gero, eledun honek jabeldura aurkeztu zion kontseilariari Osoko Bilkuran, plan hori Legebiltzarrera noiz iritsi ahal izanen zen jakiteko, eta kontseilariak erantzun zuen ezen urtea amaitu aurretik plana Administrazioaren eskuetan egonen zela.

Azkenik, zegokion batzordean aurkeztu zuen plana Kultura eta Turismo kontseilariak, martxo honetan. Nahiz eta lana "osoa eta interesgarria" zela jo, kontseilariak ez zuen plan gisa hartu, baizik eta lan-material gisa, Nafarroako Kultura Kontseiluko batzorde eskudunari helaraziko zitzaiona, zeinak, antza, zabalagoa eta asmo handiagokoa den "Arte Eszenikoen eta Musikaren Plan Zuzendari" bat prestatzeko eginkizuna baitauka.

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

Zer deritzozu Departamentuak berak Goldberg enpresari enkargaturiko lanari? Zer arrazoi direla eta Departamentuak ez du bere gain hartu Planaren edukia, kanpo-enpresei enkargaturiko beste plan zuzendari batzuekin egin ez bezala? Bideragarria iruditzen zaizu Departamentuaren organo aholku-emaila den Nafarroako Kultura Kontseiluko batzorde eskudunak plan hori egitea? Zer egutegi darabil Departamentuak plan hori enkargatu eta amaitzeari dagokionez?

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Ondare Arkeologikoaren eta Indusketen arloko 2010eko Jarduketa Plana Parlamentuan garaiz aurkeztu ez izanari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Ondare Arkeologikoaren eta Indusketen arloko 2010eko Jarduketa Plana Parlamentuan garaiz aurkeztu ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzeta.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, Batzorderako honako ahozko galdera hau egin du, mozio bat betetzeari buruzkoa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen modu globalean eta koordinatuan aurkeztera Indusketen eta Ondare Arkeologikoaren arloko 2010eko Jarduketa Plana.

Zioen azalpena

Aurreko bilkuraldian, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen ekimenez, mozio bat, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen aurkez zezan indusketen eta ondare arkeologikoaren arloan 2010ean egin nahi

zituena jarduketaren multzoa, bereziki aipaturik honakoa:

– Aurreikusitako administrazio-egitura eta egitura hori hobetze aldera har litezkeen neurriak.

– Aztarnategi bereziki garrantzitsuen indusketa-plana eta plan hori gauzatuko duten giza-ekipoak.

– Intereseko aztarnategietan esku hartzeko plana eta ekipo arduradunak.

– Larrialdiko jarduketak, hala aurreikusiak nola aurreikusteko modukoak.

– Aztarnategiak museo bihurtzeko eta horien zabalkundea egiteko jarduketak.

– Argitalpenak eta bestelako materialak, baldin eta halakorik badago.

– Santa Crizi buruzko Plan Zuzendaria abian jartzeko eta garatzeko berariaz aurreikusitako jarduketak.

Plan hori Parlamentuari aurkezteko egun gisa martxoaren 15a ezarri zen, Batzordeak hil horretan zehar horren berri izan eta eztabaidatu ahal izan zezan.

Egun hori jadanik igaro denez, eta Plana Legebiltzarrari oraindik igorri gabe dagoenez, honako hau galdetzen dugu:

Zergatik ez da bete Nafarroako Parlamentuaren mozioan ezarritako eta talde guztiek aho batez onetsitako data? Gobernuak inolako asmorik ba al du eskaturiko Plana bidaltzeko, dagokion batzordeak horren berri izan eta ezatabaida dezan? Zein egunetarako?

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, nekazaritzako elikagaien industriarentzako laguntzen kontusailari eta nekazaritza eta ingurumen arloetako neurriei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, nekazaritzako elikagaien industriarentzako laguntzen kontusailari eta nekazaritza eta ingurumen arloetako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein da Nafarroako Gobernuak erabilitako kontusaila, nekazaritzako elikagaien industriari laguntzeko eta mahastiekin loturiko nekazaritza- eta ingurumen-arloetako neurrietarako?

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Zangozako biribilguneko eta industrialde berriko desjabetzapenei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Zangozako biribilguneko eta industrialde berriko desjabetzapenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zein egoeratan daude desjabetzeak Zangozako industrialde berrian eta biribilgunean?

- Nafarroako Gobernuak informaziorik ba al du lehen esandakoari dagokionez Zangozako Udalarri emandako inolako dirulaguntzari buruz?

Iruñean, 2010eko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, nekazaritzako elikagaien publizitaterako eta nekazaritzako kooperatibak diruz laguntzeko kontusailei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, nekazaritzako elikagaien publizitaterako eta nekazaritzako kooperatibak diruz laguntzeko kontusailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Zein da Nafarroako Gobernuak erabilitako kontusaila, nekazaritzako elikagaien publizitatea egiteko 2010ean?

2. Zein da Nafarroako Gobernuak erabilitako kontusaila, nekazaritza-kooperatibei makineria-inbertsioetarako dirulaguntzak emateko?

Iruñean, 2010eko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Bonelli Arranoa Ugaltzeko Planeko jarduketan programari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Bonelli Arranoa Ugaltzeko Planeko jarduketan programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Animaliak babesteari buruzko 15/1996 Foru Dekretuan aipatzen den IV. eranskinean (jarduketan programak) jasotako jarduketa guztien kopia. Bonelli Arranoa Ugaltzeko Plana.

Iruñean, 2010eko martxoaren 23an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Sodenak EHN-n zeukan partaidetza saldu izanari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Sodenak EHN-n zeukan partaidetza saldu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zioen azalpena

1996ko ekainean onetsi zuten Nafarroako Parlamentuak eta Gobernuak Nafarroako lehen Energia Plana. Plan haren oinarri nagusia zen Foru Komunitatean parke eolikoak garatu eta ezartzea. Eta Nafarroako Gobernuak gehienetan, nahiz eta ez beti, EHN enpresa erabili zuen, parke eoliko horiek ezartzeko.

EHN zen enpresa bat non Nafarroako Gobernuak, Sodena enpresa publikoaren bitartez, akzio-gehiengoduna baitzen, akzioen ehuneko 38rekin, eta Nafarroako Kutxak bertako kapitalaren ehuneko 10 zeukan.

Urte bereko abenduan, EHNk akordio bat sinatu zuen bere zuzendari nagusi Esteban Morrásekin, zeinaren bidez jaun horrek kapitalaren ehuneko 1,3904 erosi baitzuen, 1,9 milioi euroren truke.

Geroago, 2005ean, Sodenak (Nafarroako Gobernuak) eta Nafarroako Kutxak Acciona enpresari saldu zizkieten, 320 milioi euroan, EHN enpresan zeuzkaten partaidetzak (% 48).

Eta, azkenik, 2009ko ekainaren 29an Esteban Morrásék 42,5 milioi euroren truke saldu zion Accionari bere partaidetza (% 1,3904).

Foru parlamentarien elkarte honen iritziz, argitu beharreko gaia da ea zergatik Nafarroako Gobernuak (Sodenak) bere onespina eman zion, 1996ko abenduan, eragiketa bati, zeinaren bidez EHNk bere kapitalerako sarbidea eman baitzion enpresa horren zuzendari nagusi Esteban Morrás jaunari.

Argitu behar dena da zergatik, Nafarroako lehen Energia Plana onetsi ondoren, hots, EHNri enpresa-garapen izugarri sendoa ziurtatzen zion plana, Nafarroako Gobernuak (Sodenak) beharrezkotzat jo zuen, eta baimena eman, enpresaren kapitaleko partaidetza bat pertsona zehatz bati saltzeko.

Hamahiru urtean 21 bider baino gehiago hazi den balioa duen partaidetza bat.

Eta nola liteke, zer balioespeneke justifikatzen dute, Sodenak eta Nafarroako Kutxak 2005ean eginiko EHNren ehuneko 48ren salmenta-prezioa 320 milioi eurokoa izanda, lau urte geroago ehuneko 1,3904 zenbatean eta 42,5 milioian saltzea?

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

- 1996ko abenduan, zer arrazoi zirela-eta eman zuen baimena Nafarroako Gobernuak (Sodenak) Esteban Morrás jaunari EHNren kapitalaren % 1,3904 sal zekion?

- 2005ean nola balioetsi zen Sodenak EHNn zeukan partaidetza Accionari saltzearen prezioa? Gai horri buruzko zer azterlan eta txosten egin ziren?

Iruñean, 2010eko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Aranoko industrialdeari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Aranoko industrialdeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Aitor Etxarri Pellejero, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

1. Nafarroako Gobernuak jarri al da berriki Aranoko Heineken enpresako buruekin industrialde honi buruz hitz egiteko?

2. Harremanik egon bada, zein dira elkarrizketa horietatik Nafarroako Gobernuak lortu edo atera dituen emaitza eta ondorioak?

3. Arano-Goizueta zonaldean lanpostu berriak lortze edo sortze aldera, zein dira Nafarroako Gobernuak dauzkan proiektu ezberdinak?

4. Nafarroako Gobernuak Aranoko industrialdea erosteko aukerarik ba al du?

5. Gaia guzti hauetaz hitz egiteko Nafarroako Gobernuak jarri al da Aranoko Udalarekin harremanetan?

6. Zein da Aranoko Udalaren jarrera gai honekin?

7. Bi administrazioen artean harremanik egon bada, zein ondoriotara iritsi dira Nafarroako Gobernuak eta Aranoko Udala?

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Opatel sozietate publikoarekiko hitzarmenari buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak jaunak aurkeztutako galdera, Opatel sozietate publikoarekiko hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakariari, Barne eta Justizia Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

1.- Inolako hitzarmen, akordio edo funtzionamendurik ba al dago Departamentuaren eta Opatel sozietate publikoaren artean, Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu, erakunde autonomo eta menpeko entitateen telefonia finakoko zerbitzuen fakturazioari dagokionez? Baiezkoan, frogagiriak erants bitez.

2.- Opatel-ek telefonia-zerbitzuen fakturaziorik egiten al du? Baiezkoan, noiztik? Zer baldintzatan? Zer departamentu eta zerbitzuri eragiten die?

3.- Zer jarduketa egiten du telekomunikazio-sistemen atalak arlo honetan?

4.- Zer operatzailek ematen du zerbitzua? Zer harreman dago operatzailearen, Opatel enpresaren eta departamentu horretako telekomunikazio-sistemen atalaren artean?

5.- Telefonia-zerbitzua (finkoa eta mugikorra) fakturatzeko sistema aldatu al da azken lau urteotan? Baiezkoan, gaur egungo eta lehenagoko kontratu-harremanei buruzko frogagiriak erants bitez, data horiei buruzkoak.

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Justizia Administrazioako langileekin lotutako zenbait gairi buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Justizia Administrazioako langileekin lotutako zenbait gairi buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun dezan, langileria-gaiei buruz:

Nafarroako Justizia Administrazioako langileria-gaiei buruz eskaturiko informazioa jaso ondoren, eta informatu gabeko aferak, dagokien erantzuna beharrezkoa dutenak, badaudela joz, parlamentari honek eskatzen du honako galdera hauei erantzutea:

1.- Justizia Administrazioako zenbat langile zeuden behin-behinekotasun- eta/edo aldibaterakota-

sun-egoeran, Laguntza Judizialeko Kidegoan, 2005. urtean? Eta 2006an? Eta 2007an? Eta 2008an? Eta 2009an?

2.- Prozesu Izapidetzako Kidegoko zenbat langile zeuden behin-behinekotasun- eta/edo aldibaterakotasun-egoeran, 2005. urtean? Eta 2006an? Eta 2007an? Eta 2008an? Eta 2009an?

3.- Prozesu Kudeaketako Kidegoko zenbat langile zeuden behin-behinekotasun- eta/edo aldibaterakotasun-egoeran 2005. urtean? Eta 2006an? Eta 2007an? Eta 2008an? Eta 2009an?

4.- Auzitegiko Medikuen Kidegoko zenbat langile zeuden behin-behinekotasun- eta/edo aldibaterakotasun-egoeran 2005. urtean? Eta 2006an? Eta 2007an? Eta 2008an? Eta 2009an?

5.- Zenbat lanpostu huts bete dira 2005ean Laguntza Judizialeko, Prozesu Izapidetzako, Prozesu Kudeaketako eta Auzitegiko Medikuen kidegoetan? Eta 2006an? Eta 2007an? Eta 2008an? Eta 2009an?

6.- Laguntza Judizialeko Kidegoko 71 lanpostuetako bakoitza noiztik dago behin-behinekotasun- edo aldibaterakotasun-egoeran?

7.- Zer antzinasun dauka Prozesu Izapidetzako Kidegoko behin-behineko edo aldi baterako 75 lanpostuetako bakoitzak?

8.- Zer antzinasun dauka Prozesu Izapidetzako Kidegoko behin-behineko edo aldi baterako 40 lanpostuetako bakoitzak?

9.- Laguntza Judizialeko Kidegoak zenbat langile zeuzkan guztira, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009 eta 2010ean?

10.- Prozesu Izapidetzako Kidegoak zenbat langile zeuzkan guztira, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009 eta 2010ean?

11.- Prozesu Kudeaketako Kidegoak zenbat langile zeuzkan guztira, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009 eta 2010ean?

12.- Auzitegiko Medikuen Kidegoak zenbat langile zeuzkan guztira, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009 eta 2010ean?

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Foru Legearen garapenari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Foru Legearen garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Museoei eta Bilduma Museografiko Iraunkorrei buruzko Foru Legeak, zeina Legebiltzarrek 2009an onetsi baitzuen, bere artikuluetan hiru urteko epea ezartzen du legea bera osoki garatua izateko. Hala ere, jadanik zenbait afera lantzen hasi behar izan dira, eta, horrez gain, legearen garapenak zuzenean ukitzen dituen erakunde eta pertsonekin harreman erraza ezarri.

Afera zer egoeratan dagoen jakiteko, honako en berri izan nahi dugu:

– Nafarroako museo eta bilduma museografiko iraunkorren arduradunei idatziz eta ofizialki jakinarazi al zaie, legea onetsi ondoko hilabete hauetan zehar, lege hori existitzen dela?

– Egin al da azalpenerako inolako bilkura edo lan-bilerarik Kultura eta turismo departamentuaren eta Nafarroako museoen eta bilduma museografiko iraunkorren arduradunen artean, aipaturiko legearen edukia aurkeztu, esplikatu eta eztabaidatzeko eta epe labur, ertain eta luzean haren aplikazioa eta garapena definitzeko? Baiezkoan, zein egunetan egin da?

– Egin al da inolako funtzionamendu-protokolorik, erakunde bakoitzak legearen garapen eta aplikazioan izanen duen zeregina ezartzen duenik, eta Nafarroako museoen eta bilduma museografiko iraunkorren eskueran ipini al da?

– Idatziz jarri eta Nafarroako museoei jakinarazi al zaie Nafarroako Foru Komunitateak museoen arloan jorratuko duen politikaren diagnostikoa eta plangintza?

– Nafarroako museoei eta bilduma museografiko iraunkorrei aurkeztu al zaie Nafarroako museo-sistema? Zein egunetan?

– Hilabeteotan sistema horretako zenbat helbururi ekin zaio, eta horietako zenbat abiarazi dira?

– Nafarroako museo-sistema oraindik ez bada eratu eta horren berri ere eman ez bada, nola pentsatzen da lege hori aplikatzea, esplizituki dioena museo eta bilduma iraunkor guztiek adierazi behar dutela, ikusteko modukoa eta publikoa den toki batean jakinaraziz, sistema horren barrenean daudela?

– Eratu al da Nafarroako Foru Komunitateko museoen eta bilduma museografiko iraunkorren

Erregistroa? Baiezkoan, hori existitzen dela jakinarazi al zaie Nafarroako museo eta bilduma museo-grafiko iraunkorrei?

– Nafarroako museoekin eta bilduma museo-grafiko iraunkorrek inurrats koordinaturik egin al da funtsen inbentario orokorra prestatzeko?

– 29. artikulua dela medio, museoak eta bilduma museo-grafiko iraunkorrak behartuta daude

beren funts museo-grafiko, dokumental eta bibliografikoen kudeaketa dokumentalerako sistema bat edukitzera. Betebehar hori museo eta bilduma guztiei jakinarazi zaie?

– Nafarroako Lehen Plan Museologikoaren prestaketari ekin zaio? Eta horren berri eman da?

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Mendekotasun Legeari atxikitzen zaizkion zaintzaileen generoari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Mendekotasun Legeari atxikitzen zaizkion zaintzaileen generoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Mendekotasunari buruzko galdera:

Mendekotasun Legeari atxikitzen zaizkion zaintzaileen genero-banaketa zein da?

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Mendekotasun Legea indarrean sartu zenez geroztik prestazio ekonomikoak nahiz zerbitzuren bat jasotzen dituzten pertsonen kopuruari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Mendekotasun Legea indarrean sartu zenez geroztik prestazio ekonomikoak nahiz zerbitzuren bat jasotzen dituzten pertsonen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parla-

mentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Mendekotasunari buruzko galdera:

- Mendekotasun Legearen indarraldia hasi zenetik, urte bakoitzean zenbat pertsonak jaso dituzte mendekotasunaren ondoriozko prestazio ekonomikoak, eta zenbat pertsonak jasotzen dute nolabaiteko zerbitzuren bat?

- Famili-zaintzaile gisa jarduten duten zenbat pertsonak parte hartzen dute prestakuntza-programetan?

- Zaintzaile diren zenbat pertsonak hartu dute alta Gizarte Segurantzari?

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Merkataritzako Erregistroan inskribatuta dauden Sakanako, Larraungo, Lekunberriko eta Irurtzungo enpresei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko martxoaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Merkataritzako Erregistroan inskribatuta dauden Sakanako, Larraungo, Lekunberriko eta Irurtzungo enpresei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein dira Merkataritza Erregistroan inskribatuta dauden Sakana, Larraun, Lekunberri eta Irurtzungo enpresak? Zerrenda xehakatu nahi genuke.

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

